

Zabalik daude Euskara arloko diru-laguntza deialdiak

Euskara arloko diru-laguntza lerrotako eskaera epea zabaldu du Irungo Udalak (GAO 2019-05-14, 89 zenbakia).

Eskaerak HAZ-SAC **bulegoan** egin daitezke (San Martzial, 2) edo irun.org/sac web gunean bestela, erakundearen ziurtagiri elektronikoarekin edo Irungo Udalean izena emandako ordezkari baten Irun Txartela, NAN edo izenpe ziurtagiriarekin.

Ondorengoak dira diru-laguntza lerroak:

Dirulaguntza lerroa	Eskaria egiteko epea	Justifikazioa	Zuzkidura ekonomikoa eta zenbatekoa
Euskaraz Baietz! Irungo ikastetxe, institutu eta elkarteetan euskararen erabilera indartzeko egitasmoak (26. Eranskina)	2019-10-04	2020-06-12	31.610.-€
Entitate pribatuak Irungo udalerrian dituzten lantokietan euskararen erabilera-planak egin edota garatzeko (27. eranskina)	2019-08-14	2019-12-13	4.700.-€
Irungo haur eskoletan, haurtzaindegietan eta haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeetan matrikulaturik dauden umeen gurasoentzako euskara eskoletarako (28. eranskina)	2019-10-04	2020-06-12	8.000.-€
Euskararen Nazioarteko Eguna " ekitaldietarako (29. eranskina)	2019-11-15	2019-12-13	4.000.-€
Euskara sustatzea helburu duten ekintza sozialak. Gazteen artean euskararen erabilera sendotzeko programak eta euskararen erabilera sustatzeko programa orokorrak. Deialditik kanpo geratzen dira hezkuntza arloari soilik lotutako programak. egin daitezke eskaerak (30. eranskina)	2019-08-14	2019-12-13	3.496.-€
Hizkuntza paisaia euskaratzea Irudi korporatiboa, errotulazioa, web orriak, esatariak, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egindako publizitatea hedabideetan. egin daitezke eskaerak (31. eranskina)	2019-12-13	Ø	12.000.-€
Euskara sustatzea helburu duten egitasmo sozial zehatzak Gazteen artean euskararen erabilera sendotzeko programak eta euskararen erabilera sustatzeko programa orokorrak. Deialditik kanpo geratzen dira hezkuntza arloari soilik lotutako programak (32. eranskina)	2019-12-13	2019-12-31	4.000.-€
2019-2020 ikasturtean Irungo eskoletan bertsolaritzaren inguruko ikastaroak emateko. (36. eranskina)	2019-09-20	2020-06-12	15.000.-€